

LAUDIOKO UDALA

Kirol egitasmoak bideratzeko diru-laguntzen 2019 urteko II deialdia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 17an onetsi du 2019an kirol egitasmoak bideratzeko diru-laguntzen deialdi hau. Kirol egitasmoak bideratzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak aplikatuko zaizkio deialdiari, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 17an onetsitakoak.

LEHENENGOA. Objektua

Deialdi honen xedea da norgehiagokako araubidean ematea Laudio Udalak Kultura Garapen Arloko Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuaren bidez ematen dituen diru-laguntzak. Diru-laguntza horiek Laudion kirol egitasmoak antolatu, garatu eta gauzatzeko dira, baita bertoko klub eta kirolarien gastuak finantzatzeko ere.

BIGARRENA. Onuradunak

Onuradun izaera edukiko du kirol jarduerak bakarka edo kolektiboki sustatzen edo egiten dituen pertsona orok, betiere, jarduera horiek deialdi hau eraentzen duten oinarri arautzaileetan zehazten diren ezaugarriak betetzen badituzte.

HIRUGARRENA. Diruz lagunduko diren proiektu eta gastuak

Proiektu eta gastu hauek lagundu ahalko dira diruz deialdi beraren barruan:

- Kirol federatua bultzatzen dutenak.
- Udalerriko lehen hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak kirola egitera animatzeko proiektuak.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak kirola egitera animatzeko proiektuak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko edota Nafarroako Foru Erkidegoko federazioetako lizentzia duten kirolariak indibidualki edo klub bidez partaide dituzten kirol jarduerak Laudion antolatzeke proiektuak. Atal honen barruko diru-laguntzak jaso ahalko dituzte eskola-kiroleko probak ere.
- Bertoko kirol elkarteak edota klubak 50 kilometrora edo urrunago dauden lekuetara joan eta igoera faseetan, sailkapen faseetan edo txapelketetan parte hartzeko proiektuak.
- Kirol modalitate jakin bat herrian praktikatu ezin denean edo bertoko klubek ezin dutenean kirolari baten mailak eskatzen dituen zerbitzuak eman, herriko kirolariek kanpoko klubetan aritzeko joan-etorriak errazteko proiektuak.

LAUGARRENA. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak egiteko, instantzia normalizatuak bete eta udaletxean aurkeztu beharko dira, Herriarren Arretarako Zerbitzuan (beheko solairuan), deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; bestela ere, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusten den edozein formatan aurkeztu ahalko da.

Eskaerekin batera, deialdia eraentzen duten oinarrien bosgarren puntuan zehaztutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

Ebazteko eta jakinarazteko epea bi hilabetekoa da. Dagokion deialdi argitaratzen denetik aurrera zenbatuko da epea, behintzat, Balorazio Batzordeak horren ondoreak atzeratzen ez baditu.

BOSGARRENA. Aurrekontuko funtsen eskuragarritasuna eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzen laguntzen kopuru osoak ezin izango du inoiz, eta sekula ere, gainditu aurreikusitako 33.637,00 euroko zenbatekoa.

Lote hauetan banatuko da zenbateko hori:

- 1.- 25.637,00 euro kirol federatua egiten duten kirol elkarte eta klubentzako diru-laguntzetarako (lote honetatik kanpo geratzen dira urteko diru-laguntza izenduna izapidetzen zaien klubak).
- 2.- 2.400,00 euro Laudion kirol jarduera puntualak antolatzeko.
- 3.- 5.600,00 euro Laudiotik kanpo igoera faseetan, sailkapen faseetan edo txapelketetan parte hartzen duten kirol elkarte eta klubentzako diru-laguntzetarako.

Loteren bat eskatzaile barik geratzen bada edo esleitua duen diru-kopuru osoa banatzen ez bada, balorazio organoak definituko du banatu gabeko zenbatekoaren helburua

Deialdiari dagokion gastua Laudioko Udalaren 2019ko aurrekontuko "Kirol elkarteentzako diru-laguntzak" izeneko 0600 3411 48100 aplikazioan kargatuko dira.

SEIGARRENA. Balorazio eta ebazpen organoa

Kultura Garapen Arloko Batzorde Informatibo Iraunkorreko ordezkari politikoek osatuko dute Balorazio Organoa (Hizkuntza Normalizazio eta Identitate Zerbitzua nahiz Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzua). Balorazio organoaren txostena eta espedientea aztertu ondoren, Kirol Zerbitzuko arduradun politikoak ebazpen-proposamena formulatuko dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskaeran adierazitako helbidera bidaliko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan xedatutako moduetan.

ZAZPIGARRENA. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza ordaintzeko modua izango banku-transferentzia izango da: zenbateko osoaren % 80 aurreratuko da behin betiko ebazpena onesten denean eta justifikazioa egin aurretik, jarduerak duen interes sozialaren ondorioz, eta ez-beteterik antzematen bada eska daitezkeen erantzukizunak eta itzulketak gorabehera. Diru-laguntza justifikatu ondoren eta laguntza eman zuen organoak justifikazioa onartu ostean ordainduko da gainerako % 20.

ZORTZIGARRENA. Justifikazioa

Justifikazio-dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik edo diru-laguntzaren emakidaren berri jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta.

Deialdi hau eraentzen duten oinarrien hamaseigarren puntuan adierazten da aurkeztu beharreko dokumentazioa.

BEDERATZIGARRENA.- Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean eta udaletxeko iragarkien taulan argitaratuko da, eta zabalkunde ahal bezain handia emango zaio gizarte hedabideen bitartez.

Laudio, 2019ko iraila